

# «Petronorrek ez du ezer ezkututzen. Ezer ere ez»

**Emiliano Lopez Atxurra • Petronorreko presidentea**

Gardentasuna konpainiaren industria jardueraren oinarri sakona dela dio Lopez Atxurra. Tecnaliako presidentea ere bada, eta Ibilekoa, eta Orkestrakoa. Euskal industriak garai berrietara egokitu behar duela dio, «nondik gatozen ahaztu gabe».

**Irene Lasa Muskiz**

Enpresa munduan euskararen erabilera normalizatu nahi du Emiliano Lopez Atxurra (Zumaia, Gipuzkoa, 1956), eta ardura horretatik dator elkarrizketa eman izana euskarazko egunkariari halako asko ematen ez dituen Petronorreko presidentea. Aukera baliatuz, eta haren ibilbidea eta hark hitzaldietan esandakoak ezagututa, ezin Lopez Atxurri Petronorri buruz soilik galdetu. Zenbat galderei erantzun zehatza ematea ezinezkoa du, delitua izan litekeelako administrazio kontseiluren bateko informazioa ematea, adibidez. Baina ez da gelditu erantzun gabe; «zaraztarra zarelako, e!», esan du zumaia, irribarrea ahoan.

**Zer iruditzen zaizkizu Frantziako hauteskudeen lehen itzuli honetako emaitzak? Susmoa dut erreparatu diezula hango bozei.** Emaitzak interesgarriak izan dira, Europako Batasunaren ikuspuntutik itxaropentsuak dira, eta espero dut Macronek haize berriak ekarriko dituela. **Europaren eta globalizazioaren ezintasunak protekzionismoaren aldeko mugimendua ekarri dute.**

Ni ez nago protekzionismoaren alde: batetik, konfrontazioa ekaritzen duelako, eta, bestetik, jende guztiak daukalako eskubidea lan egiteko, bizitzeko aukerak edukitzeko. Protekzionismoa indarrean izan balitz, Indiak, Txinak eta hainbat lurraldek ezin izango zuketuen euren industria garatu. Protekzionismoak zer esan nahi du: gure etorkizuna besteen etorkizunaren truke dela? Espainia Europako Batasunean ez balitz sartu, gure sare industriala eta gure ekosistema teknologiko industrialak ez ziren garatuko orain garatuta dauden bezala.

**Arrisku garai batean bizi garelako diozu zuk.**

Globalizazioak eta komunikazioen garapenak hainbat inpaktu ditu gure bizitzan. Gauzak aldatzen ari dira, ekonomia digitala aldatzen ari da, telekomunikazioekin komunikazioak aldatu egin dira, gure kultura portaerak aldatzen ari dira. Beste ikuspegi bat behar da.

**Gure izaera industrialak ere kinka horretan ikusten duzu.**

Azken finean, gure jatorria da industria, eta gure etorkizuna ere industria da. Guk ez dakigu... turismoaz, industria prozesuez dakigu. Gure etorkizuna industria da, eta, horretarako, egokitzapen bat behar dugu.

**Ildo horretan, hainbat tokitatik azpimarratzen da euskal enpresa industrialen dimentsioaren beharra. Besterik ez bada ere, elkarlanetik. Zuk ere aipatu izan duzu kooperazioaren beharra. Baina elkarren lehiakide diren enpresetat ari gara askotan; adibidez, Irizar eta CAF.**

Nik ez dut hitz egingo enpresa zehatzez. Nik esaten dudana da: merkatu batera joan nahi baduzu eta merkatu horrek nolabaiteko sendotasun teknologiko, industrial eta finantzarioa eskatzen baduzu, ez daukazu elkarlanean joatea beste aukerarik. Merkaturik gabe ahuldu egingo zara, eta, ahulduta, teknologia izatekotan, norbaitek erosiho zaitu, eta, teknologiarik ez baduzu, itxi egin beharko duzu.

**Gure industriaren etorkizunaz baikorra ala ezkorra zara?**

Ni beti baikorra naiz. Gainera, gure oinarriak esaten digu baiko-rrak izan behar dugula. Antzina-jendeak eta gure gurasoek egin zuten lanetik datoz guk gaur egun ditugun gauzak. Gu baino baliabide gutxiagorekin eta gu baino prestakuntza gutxiagorekin egin

zuten aurrera, indarrarekin eta prestakuntza profesionalarekin.

**Hemengo enpresen jatorria ahotan izan duzu elkarrizketaren batean. Askok nola hasi zuten enpresa teilape batean..** Bai...

**Baina orain jendeak enpresaburuak ez ditu horrela ikusten, baizik eta gorbatahun, aberats...** Hor nahasketa bat dago. Jende baten, eta ez jende guztiaren, imajinarioan enpresaburu guztiak estetika eta posizio jakin batenko ibexeko enpresaburuak dira. Gure enpresaria ez da hori, gure enpresaria da pertsona bat gaitasuna eduki duena produktu bat edukitzeko, hura gordin-gordin garatzeko, teknologia barne. Gai dena egunero-egunero plataforma desberdinetatik beren pro-



**Jende baten imajinarioan, enpresariak estetika jakin bateko ibexeko kideak dira. Gure enpresaburuak ez da hori»**

**«Guztatzat, ingurumen politikak ez da elementu deseroso bat, ez da arazo bat, baizik eta aukera estrategikoa bat»**

duktua munduan saltzeko, eta inoren babesik gabe. Eta azpimarratzen dut: inoren babesik gabe. Hori da gure sare industriala. Hori-ek dira benetako enpresariak. Eta hori da gure kultura.

**Eta zergatik nagusitzen da beste irudia, ibexekoarena?**

Demagogia dagoelako. Eta, azken finean, inkultura industrial bat dagoelako, ahaztu egin dugulako nondik gatozen.

**Eguno enpresaburuak eurek ere ez dute jatorri hori ahaztu?**

Besteek, ez dakit; nik ez dut ahazten, eta ez dut nahi ahaztu Jose

Mari Korta, adibidez. Zergatik? Eredu bat delako. Herri honen aurrerapausoaren errepresentazioa delako. Eta Jose Mari Korta bezala, beste hainbat... Miguel Lazpiur eta horiek zer dira? Enpresariak. Eta horiek beti eman dute etsenplu ona, beti. Eta ezin ditugu ahaztu.

**Horiekin injustizia egin dela diozu.** Bai.

**Memorian ere bai.**

Hala da, memoria ere injustizia egin zaie. Ahaztu egin dugu-eta Arizmendiarrak zer izan zen, ahaztu egin dugu Bilbao anaiaik zer izan ziren makina-erreminta sortu zuten. Ahaztu egin dugu hainbat jende zenbat lan egin duen gure bizitza hobetzeko. Eta gure gizarteak ezin du ahaztu nondik datorren.

**Zeinek ahaztu du? Sindikatuei buruz ari zinen hori esan zenuen?**

Ez, ahaztu dugu denok, zoritxarrez. Eta ezin dugu etorkizuna irabazi nondik gatozen ahazten badugu.

**Ikerketa batzuek diote krisiaren ondorioz desberdintasun sozialak areagotzen ari direla. Sindikatuek salatzen dute ongizate estatua**

**ekarri duen gizarte paktua hautsi egin dela. Ikusten duzu ongizate hori galtzeko arriskua?**

Bai. Ez badugu... Begira, beti esaten dut bizitza honetan bizikletan ibiltzen garelako, eta pedalei ematen ez badiegu izugarriko arriskua dugula erortzeko. Mundu hau Tourmalet da, gu etapa erdian gaude, eta ezin dugu ahaztu gora joan behar dugula. Ezpainak estutu, pedalarari eman, eta aurrera jo.

**Inor atzean utzi gabe, ahal bada.** Ez, ez, ahal bada, ez; erantzukizuna da inor atzean utzi gabe egin aurrera. Gure gizartearen kohe-



sioa eduki dugu inor ez dugulako atzean utzi. Zergatik? Auzolana egon delako hainbat tokitan, elkarlana egon delako, kooperatiben mugimendua... Orain hori transformatu egin behar da, maldatu, inor atzean ez uzteko. Erantzukizuna da. Eta zergak erabili behar dira horretarako.

**Hain zuzen, zerga politikak galdetu nahi nuzin. Kritika egiten da, sozietate zergan, behin kritik aterata, gutxi...**

Guk [Petronorrek] 2016an 1.200 milioi eurotik gora ordaindu ditugu zergatan; 1.274 milioi euro guztira, horietatik 674 milioi euro Bizkaian. Eta zerga horiek izan behar dute inor ez uzteko atzean. Baina zer esan nahi du inor atzean ez uztea? Denek eduki behar dutela aukera prestakuntza bat edukitzeko, aukerak izateko.

**Meritokrazian sinesten duzu.** Horretan bakarrik sinesten dut. Gure herri hau meritokraziarekin eraiki da. Makina-erremintako enpresak nondik sortu dira? Meritokraziatik.

**Aukera berdintasuna da meritokrazian oinarria. Ez dakit gure gizartearen aukera berdintasun**



ARITZ LOIOLA / ARGAZKI PRESS

### hori ziurtatua dagoen.

Ez dakit. Baina, ez baldin badugu hori finkatzen, gaizki goaz. Eta gainera, kontraesana litzateke gure historiarekin. Eta, gero, gure herriarentzat zein dira erreferenteak? Danimarka, Suedia, Norvegia. Lana, prestakuntza eta apaltasuna. Lanak eta apaltasunak egiten du herri bat handi.

### Espainiako bankuen aktibo toxikoak bildu zituen Sarebeko administrazio kontseiluko kide izan zara. Nola joaten da horrelako gauza baten lehen bilera bat?

Handik abiadura handiaren hanka egiteko sekulako gogoarekin! Ea... Niretzat, esperientzia oso positiboa izan da. Bat: ezagutzeko barne-barnetik finantza sistemaren funtzionamendua. Bi: ezagutzeko Espainiak eduki duen benetako problematika. Hiru: ikusteko zenbat jende egon den bizia eman duena honek porrot ez egiteko. Eta lau: jabetzeko gauzak konplexuak direla. Konturatzeko egon gairela mundu oso... exuberantean. Eta hor ere etsenplu bat izan dira gure herriko aurrezki kutxak; BBK, behintzat. Eta BBK diot, izan zelako garai horretan

sendotasunari eta seriotasunari eutsiziona. Ondo esaten dut, BBK. **BBKtik edo Kutxabanketik izan zinen kontseilari Sareben?**

Ez, Sareben kontseilari independente nintzen; BBKrekin kontseilari izan nintzen Cajasurren, eta hor ikusi nuen... Sareben hasi nintzenean utzi nuen hori.

### Ados... eta zer ikusi zenuen, bada, Cajasurren?

[Segundo batzuk hartu ditu] Ez dut nahi erantzun... [Baina esan nahi du zerbait]. Nik bakarrik dakit Andaluziak eskertu behar diola BBKri zer inbertsio egin zuen.

### Petronorri buruz hitz egingo dugu. Petrolioaren prezioak pixka bat gora egitean, amasa Petronorrenzatzat?

Petronorren 2016ko emaitza onak 2015eko ondorio dira. Marjinak positiboak izan direlako, baina baita hemengo dinamika produktiboa berrikuntzan oinarritu delako ere.

### Mantentze lanetarako geldialdi handia egin duzue aurten finde-gian.

Izugarrizko astindua eman dugu bi hilabete eta erdian. Aprobetxatu dugu hainbat inbertsio egiteko,

eta probatzeko hainbat proiektu berritzaile, segurtasunerako eta antolaketarako.

### Geldialdiaren ostean izan da isurketa bat. Zer gorputzaldi gelditzen da horren berri ematean?

Gure politika gardentasun osoa edukitzea da. Petronorrek ez du ezer ezkututzen. Ezer ere ez. Zer-gatik? Hau filosofia bat delako, nirea eta Petronorrena; gardentasuna oinarri sakon bat da gure jarduera industrialean. Gauza txarrak gertatzen direnean, kezka izaten da ondorioa: kezka, afekzioa egon delako eta gizartearentzat afekzio hori ez delako behin ere ona; kezka, zer gertatu den jakin eta neurriak hartzeko berriz gerta ez dadin. Eta azkenik, kezka, estrategia finkatzeko. Gu-rettzat, ingurumen politika ez da elementu deseroso bat, ez da arazo bat, baizik eta aukera estrategiko bat. Ingurumenaren inguruan praktika onak baldin badauzkagu eta ondo egiten baldin baditugu gauzak, gure etorkizun industrialea salbatuta dago. Gardentasunak bakoitza bere tokian jartzen du. Hau da: demagogia

demagogia da, eta ingurumen politika ingurumen politika da.

### Ibileko buruzagi ere bazara, auto elektrikoentzako karga guzueen lan egiten duen konpainia. Non geldituko da petrolio eta non argindarra?

Nik esaten dut Petronor energia industriako konpainia bat dela. Eta horrek esan nahi du ez dagoe- la kontraktasunik erregai fosilen eta mugikortasun elektrikoaren artean. Gu mugikortasunerako energia hornitzaileak gara, eta eskaini behar dugu produktu eta zerbitzuen panoplia osoa. Gero, mugikortasun elektrikoak beste eremu batean sartu gaitu, sor-kuntza banatuaren arloan.

### Deskarbonizazioaz ari garela, Parisko akordioak, Trumpen ondoren, arriskuan daude? Zer iritzi duzu akordioaz?

Parisko akordioek ez daukate atzera bueltarik, finkatuta baitaude mundu guztirako. Hor ikusi beharko da zein eskaera dagoen 4.000 milioi biztanlerentzat. Izan ere, eskaera ez dugu ikusi behar Mendebaldetik, baizik eta Afrikatik, Indiatik, Malaysiatik, Txinatik, Hego Amerikatik...

### Eta bitartean petrolio ga garestitzen bada, hobe.

Gauza ez da prezioen gorabehera, baizik eta da gure antolaketa industriale eraginkorra izatea eta berrikuntza prozesuekin jarraitzea. Kontua da zein ahalmen dugun petrolio transformatzeko, produktu oso lehiakor eta jasangarriak egiteko. Europako ingurumen araudia oso goi mailakoa da, eta, maila horretan, etengabe-ko berrikuntza teknologikoa behar duzu. Horregatik, Antoni Brufauk Repsoleko presidentetza hartu zuenean, hemengo egoera ikusi, eta erabaki zuen segituan egitea koke plantaren inbertsioa. Hemen koke planta ez balitz egin, orain ez ginen etorkizunari buruz ariko, etorkizunak esango baitzuten honek porrot egin zuela.

### Oposizio handia izan zuen koke plantak.

Bai, eta oso jende gutxi lagundu zigun. 900 milioi euroko inbertsioa egin genuen, eta horregatik gaude gaur egun gauden bezala, irabaziak ematen. Eta horregatik herri honek jakin behar du nor arduratu zen horretaz: Antoni Brufau.